HERNANIKO HERRI MUSIKA ELKARTEA - HHME ETA HERNANIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Hernanin, bi mila eta hogeita hiruko urtarrilaren 1ean

BILDU DIRA

Alde batetik, Xabier Lertxundi Asteasuinzarra, Hernaniko Udaleko Alkatea, Gudarien plaza, z/g helbidean egoitza duena eta P2004300F IFK zenbakia duena Hernaniko Udalaren izenean.

Beste aldetik, Patricia Arocena Gorostidi NA 35.775.003-K zenbakia duena, Hernaniko Herri Musika Elkartea - HHMEko lehendakaria, elkartearen izenean, zeinak egoitza soziala Sandiusterri kalea 3 zenbakian, Milagrosa kapera eraikinean duen eta IFK zenbakia G72753114 duen.

Bi ordezkariek behar adinako legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri dokumentu hau sinatzeko eta hitzarmen hau ondoko aurrekari hauen arabera betetzeko:

AURREKARIAK

1.- Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak (Toki Araubidearen Oinarriak arautzeari buruzkoa) 25.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriak bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo erkidegoaren

beharrak eta nahiak betetzen lagun dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta zerbitzu publikoak eman ditzake, artikulu berean aurreikusitakoaren arabera.

2.- Hernaniko Udalak 2007. urteaz geroztik hitzarmena zuen Goizetik txistularien elkartearekin herriko behar musikal hainbat eskaini (dianak, kontzertuak eta beste ekitaldi ugari) eta udalerriaren kultura programazioa aberasteko. Bestalde, Hernanikoa den Leokadisti txistu taldeak ere herriko kultur programazioa osatzen duten hainbat ekintza aurrera eraman ditu urteetan zehar.

Txistua euskal kulturaren ondare ezinbestekoa eta garrantzitsua dela kontuan hartuta, Hernaniko Udalak orain arte bezala, ondare hori babestu eta herriko txistulari taldea bultzatzen jarraitzeko asmoa du.

Horiek horrela, bi elkarteetako kideen artean Hernaniko Udalarekin hitzarmen berri hau sinatuko duen Hernaniko Herri Musika Elkartea - HHME eratu dute, modu bateratuan hitzarmen honen baitan adosten diren emanaldi eta kontzertuak aurrera eramateko.

3.- Hitzarmen honen xedea da hitzarmen berri bat osatzea eta bertan jasotzea Hernaniko Herri Musika Elkartea - HHMEk beteko dituen egitasmoak eta aurrekontua zehaztea.

4.- Hitzarmen honen xedea bat dator Hernaniko Udalaren Dirulaguntzen 2020-2022 Plan Estrategikoan jasotako helburu estrategiko eta ekimen zehatzekin, zehazki:

- Udalerriko kultur sarea babestea, zabaltzea eta sustatzea, inplikatutako eragileen profesionaltasuna eta kultur sorkuntzari lotutako ereduak sendotuz (3. lerro estrategikoa).
- Kultur hedapenera bideratutako jarduerak eta programak babestea, zabaltzea eta sustatzea (3. lerro estrategikoa).
- Irabazi-asmorik gabeko elkarteen jarduera eta udalerriaren interes orokorrean eragiten duten jarduerak babestea (3. lerro estrategikoa).

KLAUSULAK

1.- Dirulaguntzaren zenbatekoa eta aurrekontu kontsignazioa

Lehena.- Hernaniko Udalak urtero 43.000€ dirulaguntza emango dio Hernaniko Herri Musika Elkartea HHMEri, 2023ko aurrekontuan Dirulaguntza izendunen atalean jasotakoa: Partida: 02.481.04.334.00 - 2023 HERNANIKO HERRI MUSIKA ELKARTEA.

Kopuru hori lau zatitan ordainduko da, otsaila, maiatza, abuztua eta azaroa hasieran, hain zuzen ere.

Dirulaguntza hau elkartearen emanaldiak prestatu eta eskaintzeagatik izandako gastuen konpentsatzioa da eta honako gastu hauek ordaintzeko izango da:

Hernaniko Herri Musika Elkarteak emanaldiak prestatu eta eskaintzeagatik zein elkartean egindako lanengatik jasotako ordainak	**28.900 €**
Bestelako gastu aldagarriak: **KUDEAKETA GASTUAK** - Bankuko komisioak ..... 150€ - Aholkularitza ..... 750€ - Elkarteko kudeatzailea (nomina) ..... 8.000€ - Komunikazioa / irudia ..... 1.700€ - Bulego materiala / fotokopiak ..... 400€ - Materialen zaintza eta mantenua ..... 400€	**11.400 €**
FORMAKUNTZA - Bazkideentzat prestakuntza saioak ..... 1.200€	**1.200€**
INBERTSIOAK - Erosketak (instrumentuak, lizentziak, partiturak, ...) 1.500€	**1.500€**
GUZTIRA	**43.000 €**

2.- Hitzarmenaren iraupena.

Bigarrena.- Hitzarmenaren indarraldia lau urtekoa izango da, hau da, 2023ko urtarrilaren 1etik 2026eko abenduaren 31 bitartekoa, eta lau urtez luzagarria.

Nolanahi ere, bi aldeetako batek hitzarmena bertan behera utzi nahiko balu, gutxienez 2 hilabete lehenago jakinarazi beharko dio beste sinatzaileari.

3.- Egoitza soziala eta materiala.

Hirugarrena.- 2003ko apirilaren 24ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez, Hernaniko Udalak onartu egin zuen Larramendi kaleko Milagrosa antzinako kaperaren instalazioak erabiltzeko baimena ematea Goizetik txistularien elkarteari eta beraz orain baimena Hernaniko Herri Musika Elkarteari emango zaio, horrela, Hermuba eta Kantuz Abesbatzarekin partekatzen du, elkartearen egoitza sozial gisa, eta hala behar izanez gero, Musika Eskolarekin eta beste zenbait kultur ekitaldiren emanaldi edo antolaketarekin ere partekatu beharko du.

Hernaniko Herri Musika Elkartea HHMEk utzitako espazioa behar bezala eta aipatutako helburuetarako erabiliko dela bermatuko du. Erabiltzen diren higiezinak behar bezala zaintzeko ardura ere hartzen du, baita eremua behar bezala erabiltzekoa ere.

Espazioaren erabilpena Udalari itzuliko zaio honako kasu hauetan:

- Hernaniko Herri Musika Elkartea HHMEk bere jarduera uzten badu edo espazioa hitzarmen honetan jasotako erabilerarako erabiltzen ez badu.
- Udalak interes orokorreko beste behar batzuetarako espazio hau erabili beharko balu.
- Hitzarmen honetan jasotakoa betetzen ez bada.

Laugarrena.- Hernaniko Herri Musika Elkartea-HHMEren inbentarioa urtero gaurkotu beharko da eta bere baitan hartzen dituen material guztiak (musika-tresnak, artxiboa, osagarri instrumentalak, baliabide informatikoak...) inbentario horretan ongi zehaztuta jaso beharko dira.

Hernaniko Herri Musika Elkartea-HHME inoiz desagertu edo desegingo balitz, inbentarioan jasotako material guztia Hernaniko Udalaren esku utziko luke.

Inbentarioa 1. eranskinean jasotzen da.

4.- Hernaniko Herri Musika Elkartearen hainbat betebehar.

Bosgarrena.- Hernaniko Herri Musika Elkartea-HHMEk urtero hainbat kontzertu eta emanaldi eskainiko ditu udalerrian, gutxienez jarraian zerrendatzen direnak:

- **Dianak** igandetan, gehienak herrigune edo kaxkoan baina auzo ezberdinetan ere joko dira ibilbideak txandakatuz. Saiakera berezia egingo da jaiak diren auzoak aurretik jakin eta igande horretako diana auzo horretan egiteko.

  Jai egun bereziak dauden asteetan (adibidez: Errege eguna, San Inazio eguna, Karmen eguna, Eguberri eguna, ...) aste horretako igandeko diana jai egun berezi horrengatik aldatuko da, hau da, igandean izan ordez jai egun horretan egingo da diana.

  Dianak urte osoan egingo dira baina uztailan ez da igandero joko eta abuztuan azkeneko igandean bakarrik joko da.

  Urteko jai egunen arabera osatuko da dianen egutegia, beraz, urte batetik bestera urteko diana kopurua aldatu daiteke.

- **Kontzertuak**: urtean zehar 4 kontzertu edo ekitaldi berezi, horietatik bi San Joanak iragartzeko kontzertua eta San Joan eguneko kontzertua izango dira, beste biak aldakorrak izan daitezke (Santa Zezilia eguna, udaberriko kontzertua, gabonetako kontzertua, emanaldi bereziren bat ...)
- **Inauteriak:** inauterietan txistuarekin egiten diren ekitaldiak (inauterietako 2 azeri dantza, buruhandiak eta diana)
- **San Joanak:** San Joanetan txistuarekin egiten diren ekitaldiak (haurren azeri dantza, festa hasierako txupinazoa, dantza sueltoko txapelketa, San Joan sua, San Joan eguneko diana, 3 azeri dantzak, buruhandiak, ekainaren 27ko diana)
- **Beste zenbait ekitaldi:**
- Madalen eguna (zaharren egoitzan)
- Olentzero

- Euskal jaietako kantu jira
- Santa Ageda bezpera
- Errege Kabalgata

Emanaldiak artistikoki modu egokian eskaintzeko adinako kide kopuruak parte hartuko du aipatutako emanaldietan. Hernaniko Herri Musika Elkartea-HHMEk gutxienez 15 txistulari izango ditu.

Udalak egoki iritziz gero, bi kontzertu edo parte-hartze eskatu ahal izango dizkio Hernaniko Herri Musika Elkartea - HHMEri, ospakizun, inaugurazio edo antzeko ekitaldiren bati lotuta. Horrelako jarduerak alde biek adostu beharko dituzte.

Seigarrena.- Taldearen zuzendaritza artistikoaz arduratuko diren pertsonek zuzendaritza hori egoki garatzeko moduko prestakuntza eta kualifikazio musikala izango dute, eta gaitasun artistiko eta profesionala bermatu beharko dute.

Elkarteko kide guztiek, halaber, hitzarmen honek eskatzen dituen beharrei aurre egiteko behar den prestakuntza eta kualifikazio musikala izango dute. Hernaniko biztanleek eta, ahal dela, Musika Eskolan ikasitakoek izango dute taldean parte hartzeko lehentasuna, betiere hori horrela izan ez dadin arrazoi objektibo eta justifikaturik ez baldin badago.

Zazpigarrena.-

Hernaniko Herri Musika Elkartea - HHME, Hernaniko Musika Eskola publikoarekin lankidetzan ariko da, balizko ikastunak atzemateko eta elkarren artean komunikazio zubiak ezartzeko, ahalik eta pedagogia maila handieneko probetxua erdiesteko helburuarekin.

Zortzigarrena.- Diruz lagundutako jardueren publizitate-euskarri guztietan, pertsona edo erakunde sustatzaileak Hernaniko Udalaren lankidetza adierazi beharko du, irudi korporatiboko arauen arabera eta Hernaniko Udalak onartutako hizkuntza irizpideak errespetatuz.

Bederatzigarrena.- Hitzarmen honetan jasotako jarduerek Hernaniko Udalak indarrean dituen euskara irizpideak beteko dituzte. Udalak euskararen erabilera normalizatzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko badu Erabilera Plana onartua. Plan horren arabera, hauek dira bete beharreko hizkuntza irizpideak:

a) ***Hernaniko Herri Musika Elkartearen kontzertuetarako publizitatea*** (egitaraua, kartelak...) ***euskaraz izango da***, eta jardueraren ahozko aurkezpena eta azalpenak euskaraz izango dira. Komunikazioa bermatzeko beste hizkuntzaren bat erabili behar bada, euskara erabiliko da lehentasunez.

Idatzizko testuan honela emango zaio lehentasuna euskarazko mezuari:

- Hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean, euskaraz idatziz.

- Testua osorik euskaraz eta laburpena gaztelaniaz emanez.
- Euskarazko nabarmenduz, letra handiagoa edo lodia erabiliz.
- Euskarazkoa beltzez eta gaztelaniazkoa grisez idatziz.
- Euskarazko testua goiko aldean edo ezkerraldean idatziz.

b) ***Udalarekiko harremanetan euskara erabiliko da, ahoz eta idatziz.***

Udaleko Euskara Zerbitzuak beharrezko laguntza emango du, euskarazko testua zuzen eta egokia dela bermatzeko, edo bestelako laguntzarik emateko.

Hizkuntza irizpideen betetze mailaren justifikazioa egiteko, urte amaierako memoriarekin batera jarduera bakoitza iragartzeko dokumentazio grafikoa (kartelak eta egitarauak...) entregatuko da. Jardueraren aurkezpenik egin bada, aurkezpen hori egiteko erabilitako hizkuntza zein izan den zehaztuko da (euskaraz ala ele bietan egin den).

Hamargarrena.- Gizon eta emakumeen berdintasunari dagokionez, Hernaniko Herri Musika Elkartea - HHMEn emakumeak elkartean sartzea eta integratzea sustatuko du, bai eskubide osoko kide gisa, bai ikastun gisa. Berdintasunaren arloan Hernaniko Udalak adierazitako irizpideak jarraitu beharko ditu.

Jarduera, proiektu edo programarekin lotutako iragarki, irudi, publizitate eta komunikazioetan ez da erabiliko ez hizkera ez irudi sexistarik, estereotipo eta rolak alde batera utziz. Era berean, ezingo da diskriminatu sexu-arrazoiengatik.

Bestalde, emakumeen presentzia eta parte-hartzea eremu guztietan ahalbidetuko da. Musika jotzen ez ezik, zuzendaritza karguetan, bazkideen artean, erabiltzaileen artean, eta abar.

5.- Dirulaguntzaren justifikazioa.

Hamaikagarrena.- Dirulaguntza epe honetarako zuritu beharko da: urtea bukatu eta hilabetera beranduenez, alegia, urte bakoitzeko urtarrilaren 31rako.

Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da dirulaguntza zuritzeko:

* Diruz lagundutako **jardueraren memoria**, ondoko gutxieneko edukiarekin: urteko jardueraren balorazio orokorra, egindako jarduerak eta horien irudiak, jardueren emaitzak, ea helburuak bete diren, hobetzeko ekarpenak... Ekintza bakoitza zein hizkuntzatan burutu den ere zehaztuko da, hitzarmen honen hamargarren artikuluan jasotakoari jarraiki.

* Egindako jardueren kostua justifikatzeko **balantze ekonomikoa**. Diru-sarreren eta gastuen balantze laburtua, egindako gastuen zerrenda sailkatua, kontzeptuen arabera antolatuta eta guztizkoak zehaztuta. Zehaztu egin beharko dira hartzekoduna, dokumentua, zenbatekoa, jaulkitze data eta, hala badagokio, ordainketa data. Bestalde, fakturak edo pareko froga balioa duten egiaztagiriak erantsiko dira.

Diru-sarreren kasuan, diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru-sarrera edo dirulaguntzen zerrenda xehatua jasoko da, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

* Zerga betebeharren ziurtagiriak: Foru Ogasuna (eta Gizarte Segurantza hala badagokio).

* Hala badagokio, aplikatu ez diren soberakinen itzulketaren eta haietatik etorritako interesen ordainketa gutuna.

6.- Helburu bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna.

Hamabigarrena.- Dirulaguntza hau bateragarri izango da edozein administraziok edo erakunde publiko nahiz pribatuk helburu berarekin emandako dirulaguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin nahiz baliabideekin. Betiere, aintzat hartu beharko da dirulaguntza edo laguntza horiei dagokien arauetan ezarritakoa. Hala ere, Dirulaguntzen Lege Orokorreko 19.3 artikuluari jarraiki, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da, inolaz ere, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan.

Dirulaguntza edo laguntza hori urtero Udalari aurkeztuko zaion txosten ekonomikoaren sarreren atalean jaso beharko da.

7.- Hitzarmena ez betetzea.

Hamairugarrena.- Hitzarmen honetan jasotakoa bete ezean, hitzarmena bertan behera geratuko da, eta Udalak dagozkion neurriak hartuko ditu.

Hamalaugarrena.- Hitzarmen honen interpretazio zalantzak Udalak ebatziko ditu eta hitzarmena aplikatzearen ondorioz bestelako eztabaidarik sortzen baldin bada, horiek Donostiako Auzitegiek eta Epaitegiek ebatziko dituzte.

Agiri hau irakurri ondoren, eta ados daudela adierazteko, bi ordezkariek sinatu egin dute goian adierazitako lekuan eta egunean.

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra
Hernaniko Udaleko alkatea

Patricia Arocena Gorostidi
Hernaniko Herri Musika Elkartea-HHME lehendakaria